


# MarraziOak

# 14



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gaiterria  
eta Kirol Departamentua



ORAIN  
GIPUZKOA



2022ko irailaren 26tik 30era  
Undermount-en (Igeldo, Donostia)  
Galtzagorri elkarte  
[galtzagorri@galtzagorri.eus](mailto:galtzagorri@galtzagorri.eus)

943 471 487

## MARRAZIOAK XIV

### LIBURU ILUSTRATUAK EDITATUZ KONPLIKATZEN DUGU BIZITZA

ELENA ODRIOZOLA eta GUSTAVO PUERTA

#### ZER:

Liburu bat ilustratzea ez da bakarrik irudiz betetzea aurrez dagoen testu bat. Ez da kontsumo-objektu erakargarri bat sortzea. Liburu bat ilustratzea ez da, ezta ere, sortzailearen artelana sortzeko gosea asetzea. Literatur obra bat ilustratzean osagai bakoitza mintzo da, osagai guzti-guztiek dute zeresana sortzen den komunikazio-ekintzan. Hori da hain zuzen MarraziOak tailerraren XIV. ediziorako egin dugun proposamenaren mamia: osagai horiek guztiak ezagutzea, aztertzea eta haien gaineko hausnarketa egitea. Finean, liburuaren izaera totala aldarrikatu nahi dute **Elena Odrizolak** eta **Gustavo Puertak**, datorren MarraziOak topaketaren gidariek.

Liburu bat eskuetan hartzerakoan, are gehiago ilustratua bada, osagai guztiei erreparatzea komeni da: azala, kontrazala, tamaina, tipografia, babes-orriak, papera bera, orrialdeen disposizioa... Den-denak dauka zeresana, denak komunikatzen du eta guzti horrekin batera jasotzen du hartzaileak liburu horrek komunikatu nahi duena.

MarraziOak tailerraren hurrengo ekitaldian atal horiei erreparatuko diete parte-hartzaileek gidarien laguntzarekin eta bakoitzari dagokion garrantzia emateko pausa egingo dute osagai guztietan, banan-banan, gero osotasunari erreparatzeko. Nola egiten da liburu bat? Finean, edizioa izango da ardatza. Edizioa, ordea, artisauaren ikuspuntutik begiratua eta bidean topa daitezkeen arazoak ere aintzat hartuko dituzte.

#### NOLA:

Urtero bezala, MarraziOak jardunaldietan teoria eta praktika uztartuko dituzte irakasleek. Oraingoan teoria praktikatik beratik eratorriko da. Izan ere, nola egiten den liburua galderaren erantzuna praktikan bilatuko dute. Hala, argialetxea duten eta

liburuak egiten dituzten Odriozolak eta Puertak argitaldarien ikuspuntutik hitz egiteaz gain, sortzaileen ikuspuntutik ere mintzatuko dira. Ezin gidaritza aberatsagoa izan edizioari buruzko tailerrean.

Praktika izango da metodologiaren ardatza. Liburu kanonikoak ekarriko dituzte eta haietan ongi egindakoa aztertuko dute. Ondo egindakotik aterako dute egin behar ez denaren irudia, baita nora begira jarri behar diren ere. Arazoak eta trabak hartuko dituzte hizpide eta hori guztia liburuak artisauen eran egiten dituztenen ahotik.

Parte-hartzaileek nork bere proiektua martxan jartzeaz gain -urtero egin ohi duten bezala-, gidariek eskatzen dizkieten ariketak egin beharko dituzte. Jolasean arituko direla agindu digute Odriozolak eta Puertak, hau da, modu ludikoan arituko direla eta batzuetan adeigabe ere.

Finean, liburua osatzen duten osagai eta atal guztiak aintzat hartuko dituzte, bakoitzari lupaz begiratu ondoren osotasunari begiratzeko.

#### **IRAKASLEAK:**

Elena Odriozola  
Gustavo Puerta

#### **NOIZ ETA NON:**

**2022ko irailaren 26tik 30era**, Undermount-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Donostia). \* Donostiako autobusen 16-Igeldo lineak parean du geltokia. Linea honetako autobusak Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatzen dira.

Ordutegi jarraitua izango du tailerrak: **10:00etatik 18:00etara**, bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldiarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman beharko dute.

**Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.**

#### **NORENTZAT:**

Gehienez 10 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Euskaraz ulertzeko gai izatea ezinbestekoa da.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskal Irudigileak (APIE-EIEP) Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

### ESKAINITZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 10 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

### IZEN EMATEA:

Ilustratzaile bakoitzak **3 lan** aurkeztu beharko ditu azpian zerrendatutako kultura ezberdinen obra klasikoen **AZALA, KONTRAZALA ETA BIZKARRA**–lomoa– egin beharko dituzte. Aurkeztutako lanak ikastaroan zehar lanerako erabiliko dituzte.

- *Ramayana* (Testu literarioa. Egilea Valmiki da ustez. India, k.a. III)
- *Mahabarata* (Testu epiko-mitologikoa. India, k.a. III)
- *Hamaika eta bat gau* (Arabiar ahozko tradizioaren konpilazioa. Erdi Aroa, Ekialde Hurbila).
- *Iliada* (Troyako gerraren kontakizuna. Homero, k.a. VIII)
- *Nibelungoen Kantua* (*Nibelungenlied* poema epikoa. Alemania, XIII)
- *Roldanen Kantua* (*La Chanson de Roland* poema epikoa. Frantzia, XI)
- *El Cantar de mio Cid* (espainiar poema epikoa. Espainia, XIII)
- *Guillermo Tell* (Suitzaren independentziaren -XIV- bueltako alegietako pertsonaia)
- *Eddak* (Mitologia nordikoa jasotzen duten piezak, XIII).

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

- Curriculum
- NANren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du [administrazioa@galtzagorri.eus](mailto:administrazioa@galtzagorri.eus) -era.

### EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2022ko ekainaren 30a** izango da.

Aukeratutakoei 2022ko uztailaren 11ko astean erantzungo zaie.

### ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

**INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:**

943 471 487

[www.galtzagorri.eus](http://www.galtzagorri.eus) / [administrazioa@galtzagorri.eus](mailto:administrazioa@galtzagorri.eus)